

# KONDAIRAK

E.H. mito gehienetan JENDEEN ETA IZAKI MITIKOEN ARTEKO HARREMANAK azaltzen dira, mesfidantzako harremanak kasik beti, askotan etsaigoa. Izaki horiek batzuetan gaiztoak, besteetan onak dira, noiz nola. Jendeak haien beldur dira eta eraso egiten diete (orainaldi etnografikoan). (Kristianismoak deabrutu dituztelako teoria). Diapositibak ez dira dekorazioak: lekuak erakustea oso garrantzitsua da.

## LAMINAK

Laminak dira Euskal Herrian gehien aurkitzen diren izaki mitikoak. Zubiegile gisa ezagunak dira Iparraldean, eta gizontxoak izaten dira orduan. Baina neskak ere badira, biziki ederrak, batzuetan ahate zangoak dituzte, ur bazterrean egoten dira orraztatzen urre orraziaz (orraziaren lapurreta), edo beren oihalak hedatzen.

## LAMINA ZAURITUA

Bertsio zenbaiten bilduma

Etxe batean (etxearen eta herriaren izena ematen dira) emazte bat iruten edo galtzeta egiten aritzen zen gauaz supazter ondoan, gizona oheratuta. Akitzen zenean, xingarra gerrenean (burruntzian) (edo urin-broskak) erretzen zuen – gizonaren isilean. Lamina bat etortzen zitzaion tximiniatik jatekoa eske, eta emakumeak ematen zion bakeagatik. Baina gauero gauza bera zen, laminak jana eramaten. Azkenean aspertu zen eta gizonari salatu zion. Eta hark: “Nik zuzenduko dut lamina hori!” Biharamunean emazte jantzi eta jarri zen iruten. Lamina etorri zen eta zerbait sumatu zuen:

- Bardatik hona bizarra laztu zain! Zer dun izena?
- Nik nihaur (Hegoaldean “Neure buru”).
- Nihaur, eman xingarra!

Gizonak gerrena suan eman zuen eta, goritua zenean, laminari sartu zion, gehienetan ahotik (uzkitik Zuberoan, begitik diote Orozkon). Lamina oihuka joan zen eta lagunek galdegin zioten

- Nork egin daun?
- Nihaurek!
- Hihaurek egin badaun, hihaurek atxik!

Eta ez zen gehiago laminarik ageri etxe hartara.

Bertsio batzuek diote, lehen aberastu zela etxe hura (janariaren truke soroko lanak egiten zituzten laminek), baina laminek zapuztu ondoan peko errekarra joan zela (Webster, 1993 I: 47; Barbier 1931: 26).

Odiseok (Ulisek), Polifemo ziklopeari “Nehor ez” zuela izena esan ondoan, begi bakarra lehertu zion. Euskal herrian Tartaroari ere lehertzen zaio begi bakarra, baina haren kondairetan ez da aipatzen “Nihaur” edo “Neure buru” izena. Ez da esana istorioa Antzinako Greziatik datorrela, motiboa oso hedatua baita European eta bestetan.

## BIZKAIKO DAMA

Diego Lopez de Haro, Bizkaiko jauna, ehiztaria zen oso. Egun batez, basurdearen zain zegoela, emakume bat entzun zuen haitz baten gainean jarririk abesten ari zela; hurbildu zitzaion eta oso ederra zen eta dotore jantzia. Harekin maitemindu zen eta galdegin zion nor zen, eta hark erantzun zion oso andre gora zela. Diego Lopezek esan zion, lur hartako jauna baitzen, harekin ezkonduko zela, berak onartzen bazuen; andereak bai, onartuko zuela, agintzen bazion ez zela inoiz haren aurrean sinatuko; eta baietz agindurik, harekin joan zen.

Andre hura guztiz ederra zen eta ondo egina bere soinean, salbu oin bat bazuela ahuntzarena bezalakoa. Elkarrekin bizi izan ziren luzaz eta bi haur izan zituzten. Lehena mutila, Iñigo Ezkerra, eta bestea neska. Diego jaunak eta emazteak elkarrekin apairu egiten zutenean, mutila aitaren ondoan jartzen zen eta neska amaren ondoan. Egun batez, mendian basurde handi bat hil eta etxera ekarri zuen senarrak emaztearekin eta hurrekin jateko; hezur bat bota zuten mahaitik eta, haren harrapatzeko lehian, zakur alano batek eta ihiztor (ehiza-zakur) batek elkar borrokatu zuten, eta ihiztorak lepotik eutsi zion alanoari eta bertan akabatu. (Txikia handiari nagusitzea) mirakulua zelakoan, Lopez jauna harriturik sinatu zen esanez:

- Andre Dena Maria balia dakidala! Egundaino ez du inork holakorik ikusi!

Emazteak, senarra sinatzen ikusi eta bere bi hurrei atxiki zien; baina jaunak semeari eutsi eta ez zuen askatu. Orduan andrea jauregiko leiho batetik jalgi zen alabarekin eta mendirantza alde egin zuen. Eta ez zuten gehiago ikusi (Barcelos-ko kondea, *Livro de Linhagens*, 1344. Kondairaren lehen zatia, oso laburtua).

Gaia oso zabaldua da folklorea. Erdi Aroan, noble-etxe zenbaitek kondaira erabili zuten naturaz gaineko arbasoak emateko beren leinuari. Melusina - Lusignan (Poitou) etxekoen arbasoa - da horietan ezagunena, batez ere Jean d'Arras-ek idatzi zuen *Le roman de Mélusine* (1394).

## MELUSINA

Forez-eko kontearen seme Raimondin, ehizan zebilelarik, iturri baten ondoan pasatzean, emazte eder batek, Melusinak, hots egin zion, bai eta agindu jaun ahaltzu bilakaraziko zuela berarekin ezkontzen bazen, baina hitz eman behar zuen inoiz ez zela larunbatean ikusten saiatuko. Gizonak hitz eman zuen eta ezkondu ziren. Haien fortuna gora eta gora joan zen, Melusinak lur berriak landatzen eta gazteluak eraikitzen baititu etengabe, eta hamar seme ukan dituzte.

Anaiak Raimondini esan zion Melusina, larunbatean ezkututzen zenean, ez ote zebilen maitale batekin, non ez zuen penitentzia egiten lamia zelako. Raimondin gazteluko zolara doa; ate bat itxia aurkitu zuen, ezpataz zulatu eta ikusi zuen dupa batean Melusina zegoela orrazten ari, eta sugea zela zilborretik behera. Senarrak ez zuen orduan deusik esan. Baina bikotearen seme batek monastegi bat erre zuenean, fraileak barru, Raimondinek emazteari bota zion hura bezalako mamu eta suge faltsuaren haurrak ez zirela zerurako. Ordu berean Melusinak leihotik alde egin zuen suge hegaldun itxuran, ostots eta ihurtzuriak bezala eginez. Geroztik inudeek bakarrik ikusi zuten, bere haur tikienak artatzeko itzultzen zenean (kondairaren bigarren atala, oso laburtua).

## **ANBOTOKO / MURUMENDIKO ANDEREA**

Oso istorio antzekoak kontatzen dira Anbotoko (eta Muruko) Andereaz, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Gaur egungo Euskal mitologian Andere hori da pertsonaia ospetsuena. Tradizioan Dama edo Señora esan diote leku gehienetan. Leku bakar batzuetan Mari izena ere (Durangaldean, Murumendi inguruan (baina aldi berean Dama ere bai).

Barandiaranen eraginez, Mari gailendu da eta haren fama Euskal Herri osora zabaldu da.

Beasaingo Murugueneko semeak omen zion, infernuko deabrua bazen ere, neska ederra behar zuela. Behin, Muru mendian artzain zebilela, neska eder bat ikusi zuen, eserita ileak orrazten. Berarekin hizketa hasi eta elkarrekin ezkontzeko lana hartu. Ezkondu omen ziren eta baita zazpi ume izan ere. Andre hori ez omen zen elizara joaten. Gizonak behin gurdian hartu omen zuen sokaz lotuta. Baina eliza-aurrera iritsi zirenean, andre hori su-ta-gar jarri, sokak erreta airatu omen zen eta Muru aldera joan. Seme bat apez egin omen zen (eta bestea ekaitzegilea zen: bigarren honek uzta xehatu nahi duenean, lehenak konjuratuko du) (Ordizian kontatua 1956an, Barandiaran 1973a: 438).

Kondairarekin lotua den koplak herrikoia (Tapiak abestu du)

“Perretxikotan nenbilenean / Mendiolako basoan / dama gazte bat bilatu neban / elorri baten onduan. // Gaztea nintzen, zorua nintzen / jarri nintzakon albuan / amantaltxua zabaldu eta / altzuan hartu ninduan”.

## **BETI AIREAN**

Anderea mendi batetik bestera ibiltzen da, joan-jinka

Anboton (edo Murumendin edo Aralarren...) egotaldi bat egiten du (komunzki 7 edo 3 urte) eta beste mendi batetara aldatzen da, beste horrenbeste denbora egoteko han. Eta gero atzera itzultzen da Anbotora. Bidaiak airean egiten ditu eta orduan ikusten zuten, gauaz, su eta gar pasatzen, zenbaitetan tximisten artean..

Hainbat herritan esaten zen bertako mendi batera joaten zela Anbototik:

- \* Anbotokoa: Oñatin zioten Aloñara joaten zela; Arrasaten, Udalatxera; Orozkon Gorbeira; Baranbion, Urduñako Atxera
- \* Murumendikoa: Murumenditik Txindokira eta Aralarko San Mikelera; Zaldibian diotenez, Aizkorrira eta Aralarrera.
- \* Putxerriko dama (Aralarren, Sakana gainean): Txindokira.

Leku zenbaitetan beleei edo zaiei lotua da.

Denetan emazte eder gisa irudikatzen dute, ile horia eta soineko ederra jantzita.

Andere hori singularrean aipatzen da beti (Basajauna edo Tartarora ere gehienetan); besteak, aldiz, pluralean izendatu ohi dira: laminak, mairuak, jentilak, galtzagorriak...

## EKAITZA ETA UZTA

Anderea egoten zen eskualdean eguraldi txarra egiten omen zuen eta babazuzak (kazkabarrak) uztak suntsituak zituen.

Hori galarazteko, herri batzuetako apezak Anderearen haitzuloa bedeinkatzera joaten omen ziren maiatzaren 3an, Santa Gurutz egunean: Itsasondoko apeza Murumendiko Dama-Zulora joaten zen; Arantzazuko fraileak Aloñako gaizto-zulora. Urkiolako eta Urduñako apezek ere berdintsu egiten zuten.

Loteria zen: apezak barruan harrapatzen bazuen, ekaitzegilea ezin zen handik atera - bedeinkazioa zerrailu magikoa zelako - eta bakea zuten inguru haietan urte batez; baina kanpoan harrapatzen bazuen, alderantziz zen: bere zuloan ezin sartuz, inguru guztiak suntsitzen zituen - "kanpoak deabrutzen" zituela zioten Zeberion (Etxebarria Aiesta).

Andereak, meteorologian eraginez, lurraren joritasuna baldintzatzen du. Haitzuloetan egoitza duenez, lurraren pertsonifikazioa dela ondorioztatu da (hortik Amalur), nahiz eta haren harpeak goi mendikoak diren, zeruari hurbil. Greziako Zeus ekaitzegilea ere hartzulo batean sortu eta beste batean hazi zen; lurraren emankortasunean duen zereginagatik, "nekazari" izena egokitzen zitzaion (Hesiodo); hargatik inork ez du Aitalur deitzen. Anbotoko Anderea airekoa da nagusiki. Tradizio zaharrear ez zaio 'Amalur' esaten, eta hitzak berak aski berria dirudi.

Tximistak eskuan eta arranoa aldean irudikatzen zen Zeus.

Saiak eta beleak, ekaitz hegaztiak dira Amerikako mitoetan (Thunderbird)

Melusina suge hegaldunak bere baitan biltzen ditu lurpeko sugea eta aireko hegaztia (aurkakoen batasuna). Irudi hori ekaitzaren sinboloa ere da:

The waves arose. Higher and higher still / Their fierce necks writhed beneath the tempest's scourge / Like serpents struggling in a vulture's grasp. P. B. Shelley, *Alastor* (1815)

## BASAJAUNA

Xahok zioenez, Pirinioetako mitoetan ospetsuena da Basajauna.

Bortuan ibiltzen da, Erronkaritik Orreagara eta Izpegirainoko oihanetan. Jende irudia da eta gorputz osoa estaltzen dio ileak. Oso handia da, oreina baino zaluago dabil eta indar harrigarria du.

Jende oin bat du eta haren parean zaldi zango bat, "kotxu ipurdia bezala". Aztarna bereziak uzten ditu elurrean, bat borobila eta bestea oin normalarena, diote Luzaiden.

Bortuan basajaunarekin buruz buru gertatzen dira artzainak, arriskutsua da, jendeak jaten omen dituelako.

## **BASAJAUNA ETA HIRU EGIAK**

Eihelarre Etxeberriko artzaina, ardiak bordan zerraturik, bortutik heldu zen iluntzean eta ohartzen da kotxia ahanzi zaiola bordan. Itzultzen da bordara eta ikusten du Basajaun bat artaldearen erdian. Basajaunak erraiten dio:

—Hiru egia konda itzadak eta utziko haut joatera minik egin gabe.

Artzaina hasten da:

—«O, gau ederra! Egunaz bezain argi da». », diote ilargiak argitzen duen gau batean.

Baina, jauna, egunaz beti argixeago.

—Egia duk — Basajaunak.

Artzaina berriz:

—«Zer artho hona!», diote ere, «ogia bezain hona da!» Baina, jauna, ogia beti hobexeago.

—Egia duk oraino —dio Basajaunak.

Hirurgarren egia ezin pentsatuz... azkenean artzainak erraiten du:

—Jakin banu hemen harrapatuko zintudala, ontsa begiratuko ninduzun honat jitetik.

—Sinesten diat, dio Basajaunak. Hartzak hire kotxia eta habil etxerat.

(Cerquand, laburtua)

(Etxeberriko artzainak bezala, Edipok bizia salbu izan zuen, Esfingearen enigmari erantzunez: “Zein izaki egoten da lau zangotan goizean, bitan eguerdian eta hirutan arratsean?”

Basajaunak ardiak begiratzen ditu, haien artean babesturik, janari eta bero pixka baten truke. Barkoxen diote: Basajaunak ukitzen duen bildotsa otsoak ez duela jaten. Laminak etxeetara bezala (jateko eske), basajauna mendiko etxoletara hurbiltzen da.

Baxenabarreko kondaira batzuetan Basanderea du bikotekide (paredro).

## **BASAJUAN BAHITZAILEA**

Bahitzaile jaioa da Basajauna. Neskak hartzen ditu eta bere leizera eramaten.

Basajaunaren gatibuak eta Basandereak jarrera berdinak dituzte: leize hegian orraztatzen edo ganderailuaren ondoan.

Bahiketen inguruan nahaste eta kalapitak:

\* Basajaunak neska bat bahitzen

\* Artzain batek bahitua seduzitzen du / edo basanderea gogutzen

\* Basanderea jelostu eta mendekatzen da

Olinpoko manerak dira: Zeus beti emazte ederren atzean; Hera, beti jelos, emazte horiei mendekatzen, haien haurrak hiltzeraino (Lamiarenak adibidez).

## **BAIGORRIKO NESKA BAHITUA**

Basajaunak Baigorriko neska eder bat “seduzitu” zuen. Basandereak neska harrapatu zuen, enbor hustu baten barnean sartu eta erre kara bota zuen... Ur handia zekarren

errekak eta “San Esteban”go (Baigorri Saint-Etienne, naski) zubiraino eraman zuen. Hango jendeek aurkitu zuten: negarrak entzun eta atxeman zituzten neska hila eta haur sortu berria. Haur hura etxe onean hazi eta Baionako apezpiku izan zen.

Moises uretatik salbatua motibo oso zaharra da; antzinako Mesopotamiatik heldu da, Akad-eko Sargon I-ari ere lotua baita.

Baina Baigorriin haurra ez da bakarrik, amarekin baizik. Perseoren kondairan bezala: Argos-ko (Grezia) erregeak, bere bilobak hilko zuela orakulu batez jakinda, Danae alaba entzerratu zuen; Zeusek, urre-auria bilakaturik, haurdun ezarri zuen. Erregeak ama-semeak kutxa batean sartu eta itsasora bota zituen; baina onik atera ziren - eta bilobak aitaita hilko gero.

Nor ote da Baigorriko “Sargon-Moises-Perseo” hori? Baionako apezpiku baigorriar bat baizik ez dugu ezagutzen: Bertrand Etxauzkoa.

Ohikoa da pertsonaia historiko ospetsu bati mito bat eratxikitzea: Atsular eta Atarrabi apez-sorgin bilakatu ditu tradizioak. Eta arbaso mitiko asko badira mitologian. Bizkaiko eta Lusignan etxeen kasuez gain, Suediako errege-erreginek (Bernadotte dinastia) Pirinioetako lamia bat omen dute asaba.

Ohartarazi behar ote da Baigorriko neska ederraren zortea (bortxatua, naski, eta hila) Diego Lopez edo Murugueneko semearena baino askoz krudelagoa dela?...